Asier Bilbao Aurreskoetxea (1. guztira 1)
Tecnico Auxiliar Cultura Odo y Comunicación
Sinaduraren data: 09/02/2023
HASH: cf14812f4bac1098c989b176d3daa875

Exp. 211/2023

BERTSO IKASTAROAK KONTRATAZIORAKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA ERABILIZ.

Sopelako ikastetxeetako Zipiriñe eta Ander Deunako ikasleen artean bertsolaritza sustatzeko programak kudeatu, antolatu eta emateko zerbitzua kontratatu nahi da. Aipatutako zerbitzu honen helburu orokorra haurren artean euskararen erabilera indartzea da, azken urteetan hasitako bideari jarraipena emanez.

I.- HELBURUAK

Kontratuaren xedea Sopelako bi ikastetxeetan bertso ikastaroaren bitartez ikasleak euskararen munduan murgiltzea izango da. Horretarako dinamika egokiak eta material propioa eta berezia erabiliko dira: Erabili beharreko materiala esleipendunaren kontura izango da.

Ikasleek euskara normaltasunez erabil dezaten hizkuntza bizia ikasi eta landu behar dute, motibazioz eta modu atseginean. Zerbitzuaren bitartez, ikasleen euskararen ahozkotasun maila sendotu eta hobetuko da. Ohiko bide formaletatik kanpo, ahozko generoari lotutako baliabideak erabiliko dira hizkuntzaren lanketarako bide moduan.

Era berean, zerbitzuaren helburuen artean ikasleekin genero ikuspegitik lan egitea jasoko da, harreman berdinzaleak sustatzeko kontzeptu eta baloreetan oinarrituko da eta genero, sexu-identitatea edota sexu-orientazioagatik diskriminazioak gaitzestea sustatuko da.

II.- ZERBITZUAREN ANTOLAKETA

Kontratuak ondoko kontzeptuak aurreikusiko ditu.

a) Klaseak ematea:

Zerbitzua, urriaren 1ean hasiko da, eta amaiera, aldiz, ikasturte bakoitzeko maiatzaren 31n izango da, beti ikastetxe bakoitzak ezarritako egutegiaren arabera.

Klaseak astelehenetik ostiralera bitartean izango dira, eskola-orduetan, ikastetxe bakoitzak zehaztutako egun eta ordutegian. Oporretan eta jai-egunetan ez da zerbitzurik emango.

Ander Deuna Ikastolan Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleei, eta Zipiriñe ikastetxean Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleei zuzenduko zaie ekintza. Taldeen banaketa, egutegia zein ordutegia ikastetxe bakoitzarekin adostuko da, eta beti ere, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren oniritziarekin.

Ikastalde/gela bakoitzak ordubeteko klasea jasoko du astean eta 30 saio izango ditu ikasturtean zehar.

Ondoko talde kopuruak aurreikusten dira ikastetxeen arabera:

1 Ander Deuna Ikastolan: 2 talde (30 ordu x 2 talde = 60 ordu ikasturteko)
2 Zipiriñe ikastetxean: 5 talde. (30 ordu x 5 talde = 150 ordu ikasturteko)

Balioztatze Kod.: 3M9L4PZXTH6ZC5XPN2PH9H5TX | Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPúblico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 6

b) Topaketa

Ikasturtean zehar egindako lana erakusteko, Ander Deunako eta Zipiriñeko ikasleek eskolarteko topaketa batean parte hartuko dute ikasturte amaieran, maiatzean eta eskola orduetan. Topaketa Kurtzio Kultur Etxean egingo da.

Ekitaldia antolatzeak izango dituen gastu guztiak aurreikusi beharko ditu: koordinazioa, aurkezpena, gidoia, dinamizazioa, garraioa, etab.

III.- ZERBITZUAREN BESTE EZAUGARRI BATZUK

a) Klaseen programa egitea eta kudeatzea

Urteko egitaraua egingo eta abian jarriko da, Euskara Zerbitzuarekin eta ikastetxeekin batera. Egitarauak klaseek bete beharreko helburuak eta programazioa jasoko ditu. Klaseen jarraipena eta ebaluazioa ere egin beharko da. Ikasturte bakoitzerako aurreikusitako lan-ordu kopurua:

BERTSO KLASEAK	Orduak /Urtea	3 Urtetarako Orduak
ZIPIRIÑE 5 TALDE	150	450
ANDER DEUNA 2 TALDE	60	180
KOORDINAZIO ORDUAK	20	60
GUZTIRA	**230**	**690**

b) Koordinazio lanak

Euskara Zerbitzuarekin koordinatuko da, zerbitzuaren garapenarekin zerikusia duen orotan. Horregatik, gutxienez koordinazio-bilera bat burutuko da ikasturte bakoitzean. Ikastetxeetako arduradunekin ere koordinatuko da.

Sopelako Udalak garatutako prozesuari buruz informazio osoa, zuzena eta zehatza izan beharko du, eta ez jasotakoan, horrela eskatzeko eskubidea izango du.

c) Balorazioa

Era berean, ikasturte bakoitzaren amaieran, garatutako jardueraren balorazio zehatza aurkeztuko da, taldez talde, paperean eta formatu digitalean.

Txosten horretan parte hartuko duten ikasleen balorazioak, hala nola irakaslerenak ere jaso beharko dira. Txostena aurkezteko epea ekainaren 15ean bukatuko da, eta Sopelako Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu beharko da.

Baliozkotze Kod.: 3M9L4PZXTH6ZC5XPN2PH9H5TX | Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
eSPúblico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 6

IV.- LANGILEAREN PROFILA

Programaren garapenean ohiko komunikazio hizkuntza euskara izango denez, kontratuaren exekuziorako esleitutako langileak euskararen C1 gaitasun mailaren edo horren baliokideren baten bidez egiaztatuko du (Europako Erreferentzia Markoaren egokitzapenaren 48/2009 Dekretua).

Unibertsitateko gradua izango du/dute honako gaietan: hezkuntza, pedagogia, euskal filologia, komunikazioa, magisteritza, edo kontratuaren xedearekin lotuta dagoen beste graduren bat (irakaskuntzaren eremuan).

Horretaz gain, zerbitzua betetzeko proposatzen den langileak Ikasketa eta esperientzia nahikoa eta egokia beharko du izan. Zerbitzua beteko duen pertsonak honako betebeharrak izango ditu: gutxienez bi ikasturteko esperientzia izatea, kontratuaren helburuarekin lotura izan dezaketen lanetan.

Programa honetan gutxienez 2 irakasleren jarduna planteatu da programa bideragarria izan dadin.

Kontratatutako langileek laneko legeriak eta indarrean dagoen gizarte segurantzak eskatzen dituzten baldintzak bete beharko dituzte.

26/2015 Legeak aldatzen duen Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, adjudikaziodunak adingabeekin lan egingo duten langile guztien sexu-deliturik egin ez izana egiaztatzeko ziurtagiri negatiboak aurkeztu beharko ditu.

V. MEMORIA TEKNIKOA

Proiektua baloratzeko oinarria izango den memoriak honako aurkibidea jarraituko du (OHARRA: gehienez jota 20 orrialdetako memoria izango da: ez da kontuan hartuko, aipatutako orrialde kopurua gainditzen bada, hortik aurrera xedatutakoa).

a) Ikasleen ahozko gaitasuna lantzeko eta hobetzeko Bertsogintza eta ahozkotasun programaren proiektu zehatza.

Proiektu zehatzak, gutxienez, honako edukiak izan beharko ditu: oinarri teorikoa, lan-metodologia, esku-hartzeak, lana antolatzeko proposamena, ikastetxearekin, familiekin eta Udalarekin landu beharreko koordinazio-sistemaren proposamena, ikasleen artean bertsozaletasuna sustatzeko berariazko ohiko jarduera-proposamena eta metodologia, etab.

Proiektuarekin batera ikasturte batean lantzeko proposatzen den programazio zehatza ere jasoko da.

Programazioaren edukiak zehaztu eta azalduko dira. Horretaz gain, Udalak antolatu ohi dituen ekintzetan parte hartzeko proposamena ere egingo da (adibidez, Euskaraldia, Euskararen Nazioarteko Eguna, edo unean-unean egon daitekeen beste jardueraren bat). **EZ da hemen adieraziko ezta zehaztuko ere C gutunazalean formula bidez**

Balioztatze Kod.: 3M9L4PZXTH6ZC5XPN2PH9H5TX | Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
ePúblico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 6

baloratuko den jarduera osagarririk. Atal honetan ohiko programazioa baino ez da azalduko.
Era honetako egitasmoetan ezinbesteko garrantzia dute alderdi berritzaileek, bai metodologia aldetik, bai baliabide materialen aldetik..., batez ere ikasleen gogoak iraun dezan eta modu atseginean ikasten joan daitezen. Beraz, alderdi berritzaileen ikuspegia ere idatziko da. Ikasgela birtualak, webguneak edo beste era bateko bitarteko erakargarriak erabiltzeko gaitasuna eta proposamena baloratuko da.

Egitasmo honetan guztian kontuan hartu behar da udalerriaren hizkuntzarekiko errealitatea eta baita ikastetxe bakoitza kokatuta dagoen lekua ere. Ikastetxe batetik bestera ikasleen euskara gaitasuna ere desberdina izan daiteke eta erabat garrantzitsua izango da programazioa egoera desberdinetara egokitzea, egoera soziolinguistikoaren arabera beharrizanak erabat desberdinak izan daitezkeelako.

b) Eskolarteko topaketen antolaketaren planteamendua.

Bi saioko ekitaldi bat antolatuko da (egun berean) LHko ikasleen artekoa. Ekitaldia, ahal izanez gero, maiatzean zehar egingo da (ikastetxeekin, Euskara Arloarekin eta Kurtzio Kultur Etxeko arduradunekin adostuta). Aipatutako datan egiteko aukerarik ez balego, ekitaldia hurrengo ikasturteko lehen hiruhilekoan egin liteke. Ekitaldia publikoa izango da eta Kurtzio Kultur Etxean egingo da. Saioak erakargarriak eta dinamikoak izango dira, adinari egokituak.

Topaketen antolaketak, gutxienez, honako eduki hauek jasoko ditu:

-Aurkezpena, gidoia eta eskaleta. Ekitaldiaren aurkezpena arloko profesional batek egingo du (bertsozalea, bertsolaria, komunikazioan trebea, aurkezle-lanetan ibilitakoa...). Gidoia arina, erakargarria eta originala izango da.

-Espazioa girotzea eta apaintzea plotterrekin, kartelekin, maketekin, panelekin, edota ekitaldiak berak eskatzen dituen antzeko beste elementu batzuekin. Kurtzio Kultur Etxean dagoen pantaila ere erabiltzeko aukera egongo da ikastetxeetako irudiak eta ikasleen bideoak eta aurkezpenak egiteko.

c) Berdintasuna zehar-lerro gisa garatzeko eta programan txertatzeko proposamena eta metodologia:

Proiektu honen zerbitzuan garatuko diren jarduera guztietan, emakumeen eta gizonen arteko elkarbizitza osasuntsua eta aukera berdintasunean bermatzeko bitartekoak azaltzea funtsezkoa dela uste da.

Beraz, oso garrantzitsutzat jo da berdintasuna zeharkako elementu gisa txertatzea egunerokoan, dibertsitatea, rol-aniztasuna eta entzukidetasuneko baloreak zabaltzen dituen irudia sustatzeko, eta, horretarako, ezinbestekoa da sistema egokia eta eraginkorra ezartzea. Horretarako erabat garrantzitsuak dira ezarriko diren estrategiak, tresnak eta metodologia eraginkorrak.

Baliozkotze Kod.: 3M9L4PZXTH6ZC5XPN2PH9H5TX | Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
eSPúblico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 6

VI- ZEHARKAKO LERROAK

Zeharkako lerroak dira kontratatutako zerbitzuak garatutako eta sustatutako jarduera guzti-guztietan egon behar duten lan-ildoak:

a) Euskara: Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea behartzen dute.

Hori dela eta, aurreikusitako jarduera guztiak erabat euskaraz garatuko dira. Horretarako, beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: irakasleak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazio lana, eta abar.

Era berean, kontratuaren xede diren idatzizko agiriak, memoriak, zirkular informatiboak, gutunak edota beste era bateko lanak, eta Udalean entregatu behar direnak, edota familiei, edota jendaurrean jarri behar direnak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz jarriko dira, euskarari bai itxuraz bai kokapenaren arabera lehentasuna emango zaiolarik.

Erabiltzaile eta talde bakoitzaren hizkuntza errealitatea kontuan hartuta, estrategiak inplementatuko dira talde bakoitzean euskararen aldeko jarrerak eta erabilera bultzatzeko.

b) Berdintasuna: Programan emakumeen eta gizonen arteko elkarbizitza osasuntsua eta aukera berdintasunean bermatzeko bitartekoak jarriko dira: debateetan eta erabakiak hartu behar direnean emakumezkoen presentzia eta parte-hartze aktiboa bultzatuko da, genero irizpidea kontuan hartuko da ekintzak antolatzeko orduan, materialean azalduko diren irudiak aukeratzerakoan.

Entitate adjudikaziodunak lengoaia ez-sexista erabili beharko du eta dokumentazio eta material guztietatik kenduko dira emakumeen irudi diskriminatzaile guztiak.
Era berean, berdintasuna, dibertsitatea, rol aniztasuna eta entzukidetasuneko baloreak zabaltzen dituen irudia sustatuko da.

c) Inklusioa:

Gizartean dagoen aniztasuna kontuan hartuko da eta dibertsitatea zainduko da. Ikuspuntu integratzaile batetik lan egitea baztertuak izateko arriskua azaleratzen duten adierazleak agertzen dituzten pertsonen premia eta eskaerak bereziki kontuan hartzea da (ezgaitasunen bat duten pertsonak, gizarte abileziarik eza, kanpo jatorriko pertsonak, etab.)

d) Materiala: Erabili beharreko materiala esleipendunaren kontura izango da, esleipendunak eta ikastetxeek ezin izango diete ikasleei edo beraien tutoreei ezer fakturatu.

Baliozkotze Kod.: 3M9L4PZXTH6ZC5XPN2PH9H5TX | Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
eSPúblico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 6

Sopelako Udala
Ayuntamiento
de Sopela

Sopelan, sinadura elektronikoan adierazitako datan.

ELEKTRONIKOKI SINATUA

Balioztatze Kod.: 3M9L4PZXTH6ZC5XPN2PH9H5TX | Egiaztapena: https://sopela.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 6